

blikoko zapalkuntza-sistemak eta iraupen-estrategiak dituzte mintzagai, eta, ibilbide artistiko desberdinak izanik ere, jatorrian zoru komun bat azaleratzen dute: sistema patriarkala. Testigantzetan azalratzen diren bizipen eta hausnarketek argi uzten dute bertsolaritza eta sorkuntzaren mundua ez direla gizarte honen erro patriarkalez libratzen. Opari ederra da gure kultur sistema sarri idealizatuari hautsa kentzen hasteko, baina kontuz! Eguberrietako afaria kontrako eztarritik joateko arriskua izan duzu!

JOANNES JAUREGI

Literatura kritikaria

Azkendu berri den urteak eman ditu bereak itzulpenaren ere, eta izan dugu ale ederrik eta mugarririk. Isabel Etxeberriak, Alice Munro euskaratu eta 2019ko Itzulpenaren Euskadi saria jaso duen itzultzaileak, adierazi du mugimendu kolektibo baten ordezkari gisa hartu duela saria; hain zuzen, urtez urte, argitaletxez argitaletxe eta itzultzailez itzultzaile egiten den lanak ederki erakusten du mugimendu horren bizitasuna.

'Aldibereko'

Egilea: Ingeborg Bachmann
Itzultzailea: Idoia Santamaria
Argitaletxea: Erein-Igela

Literatura Unibertsala bildumak ale pare eman digu aurten, eta horien artean dago Ingeborg Bachmannen *Aldibereko* ipuin-sorta. Idoia Santamariak itzulitako bost ipuin, eta beste hainbeste emakume protagonista, guztiak ere ederki taxutuak ahots narratibosendo eta emankor batean. Azpimarratzekoa da lehen ipuina, zail xamarra narrazio-fokuaren aldaketa etengabeangatik eta aldiakako hizkuntza-nahasteengatik, baina ederki garatua, teknika literario landu baten erakustaldi petoa. Gainerako ipuinetan nabarmentzekoa da protagonisten eraketa ere, batik bat pertsonaien



Uxue Alberdi eta Eider Rodríguez. JON URBE/FOKU

taxutzea narrazio-moldearekin uztartzen den moduagatik.

'Poesia kaiera'

Egilea: Louis Aragon
Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun
Argitaletxea: Susa

Udazkeneko labealdiko kaiera hau dugu, zalantzarik gabe, aurten itzultitako poesiaren alerik pindartsuena, eta gehienbat Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileari esker, gainera; izan ere, jatorrizko hitz neurtua orobat neurturik itzultzeak erraza dirudi kaiera honetan, buruhausteak eta bi eman ohi dizkion arren itzultzaileari. Halatan, poesiaren musika nagusitzen da hemen, hoskidetasuna eta neurrira artez uztartzen baitira, erritmo poetikoaren akuilu, irudi eder eta surrealisten iturri.

'Bihotza nora, zu hara'

Egilea: Susanna Tamaro
Itzultzailea: Fernando Rey
Argitaletxea: Igela

Azkenik, Igela argitaletxearen aletxo bat dugu, oharkabean pasatu dioguna aurtengo ekoizpenaren artean (Stevenson, Gaël Faye, Sherlock Holmes...), baina azpimarratzeko modukoa, halere: *Bihotza nora, zu hara*, Susanna Tamaro 1994an idatzi eta Fernando Reyk aurten euskaratua. Amona batek bilobari idatzitako eskutitz-sorta hunkigarri batek osatzen du eleberria, eta, nahiz eta agian urrun duen Goi-Literaturaren Parnaso Distiranta, nobelax-

ka polita da, oro har ongi eusten diona istorioaren sentimentaltasunari eta arintasunari.

Ez da ahaztu behar indartsu segitzen dugula feminismoa euskaratzen ere, eta horren erakusgarri dugu Eskafandra bildumaren aurtengo alea, Irene Arraratsek euskaratua: Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua*, ikerlan mardula eta sakona, erabateko mugarrira dugu, feminismoan ez eze, euskal itzulpenengintzan ere, bai behintzat 2015ean James Joyceren *Ulises* argitaratu zenetik. Patxadaz eta orain euskaraz irakurri beharreko lana, gainerako guztiak bezala, bestalde.

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

IMANOL MERCERO

Literatura kritikaria

'Etxe honetan'

Idazlea: Aintzane Usandizaga
Itzultzailea: Asier Iturralde
'Gaston'
Argitaratzailea: Pamiela

Tapa gogorreko edizio txukunetan, musikazale porrokatu baten etxea erretratatzeko duen album ilustratu honek irabazi du aurtengo Etxepare Saria. Bertan dauden erreferentziak (*Led Zeppelin*, *Eric Clapton*, *Akelarre*, *Itoiz*), irakurle helduari keinuka ari dira, baina badakite haur-irakurleak asetzen, kontakizunak darion umorearen bidez.

Barruan zer aurkituko dugun, azalak oso ongi irudikatzen du: aitona eta bilobaren arteko harremana, onarpen eta elkar-beraste bide bezala.

Generoaren baliabideak erabilia, sorkuntza estetiko ongi zaindua baino dezente gehiago lortu dute. Narratzailea haur protagonista izanik, sinesgarria egiten da haren ahotsak duen parte hartze-ko modu sotileta irriargia, irudiekin sortzen dituen kontrasteekin.

Bost urtetik aurrerako irakurleei proposatzen zaien obra bat da, baina goiko adin mugarik ez duena.

'Siberia treneko ipuinak'

Idazlea: Bernardo Atxaga
Itzultzailea: Hainbat
Argitaratzailea: Erein

Aspaldidanik itzaroten genuen berrargitalpena da. Liburuaren sarreran tren batean doazen lau pertsonaia aurkezten zaizkigu, Moskutik Siberiarako bidean, ipuin kontari. Aipatu hurrenkeran kontatzen dituzte: *Antonino Apreta*, *Txiten istorioa*, *Asto bat hipodromoan* eta *Jimmy Potxolo*. Lehenengo eta hirugarren ipuinak Jon Zabaletaren ilustrazioekin jantzita daude, bigarrena Asun Balzolarekin, eta laugarrena Antton Olariagarekin. Ipuinok tradiziozko ahozko kontakizunen ezaugarriak dituzte, baina idazlearen asmoetara moldatuta. Guztietan literatur eta hizkuntz-estetika nahia gailentzen da, irakaspen asmo bakanen gainetik.

Bildumak 1986an jarraipen musikatu izan zuen, *Flanery eta bere astakiloak* (Elkar) LP/CDan. Lau ipuin hauenaz gain beste sei kanta ditu diskoak –letra guztiak Atxagarenak dira– JC Perezek erritmo dantzagarri-jostalarietara musikatu zuena, eta Itoizko hainbat jantzirekin grabatua izan zena.

'Atãria'

Idazlea: Yolanda Arrieta
Malaxetxeberria
Argitaratzailea: Denonarte

Distopia oinarritutako eleberri bat eraiki du Arrietak, berezko duen baikotasunarekin bada ere. Ez da bakarra izan aurten bide hauek aritu dena gazteentzako literatura sortzen. Distopia eremueta dabil Garazi Albizuak 2018an abiatu zuen *Ahire munduak* bilduma ere, aurten bigarren alea jada kalean duena, *Geun* izenarekin. Zientzia-fikzioaren

beste azpialat bat den ukronia aurkeatu du, aldiz, Nerea Loiolak, *Azken lanhütarra* obrarekin.

Eskertzen da fikzioaren *b serie*-ko eremu hauek euskal idazleek egiten duten ahalegina, urteko bizpahiru ale baino gehiago ez badira ere.

Beste kontu bat da argitalpenetan zein gutxi nabarmentzen diren generoak, zeren orainxe bertan ez baitaude bi motatakoak baizik: album azal gogorak eta *gainerakoak*, horrek dakarren duen irakurlearen kaltearekin, bere gustukoak aurkitzeko garaian. Adibide paradigmatikoa Elkarren Xaguxar saila da: irakurketa mekanizatzen ari diren zuzen obrak, gore kutsukoak zein lila kolorekoak, denak bertan aurkituko dituzu.

Itzulpenak

Haur eta gazte literaturan ere izan da nabarmentzeko moduko itzulpenik. Ia ehun urteko itxar-naldia egin ostean bada ere, aurtentzako obrak, gore kutsukoak zein lila kolorekoak, denak bertan aurkituko dituzu.

Aurten itzuli dituzte *Istorio amaigabea* eta *Momo* ere, Begiko argitaletxeok. Aukera paregabea irakurtzeko Michael Ende-ko gazte literaturari egindako ekarpen garrantzitsuenak, duten balio sozialarengatik. Azkenik, bi album aipatuko ditugu, haien paregabea kalitateagatik bezainbeste zabaltzen duten mezuagatik: Tim Bowleyk tradizio berreskuratu zuen *Jakes eta Herio* (Txalaparta) batetik, erraitaraino sartzen dena Natalie Pudoaloven ilustrazioekin; eta, bestetik, David McKeeren *Orain ez Beñat* (Pamiela-Kalandraka), haurrak eta helduak aurrez aurre, irrimaz birluzik, jartzen dituen.

ETOR ZAITEZ, eta erreserbatu orain zure bizikleta!

Oiartzun bike Haurrentzako bizikleta 16" **155€** RSP: 186€

Paseoko Oiartzun bizikleta - 28" alum. 7 abi. **325€** RSP: 399€

Junior bizikleta 24" alum. disc. **329€** RSP: 394€

Merida big nine 40 29" **449€** RSP: 575€

Haibike sduro hardnine Bike - Yamaha motorra **1899€** RSP: 2199€

Ikasteko kidz bizikleta 12" **89€**

BIZIKLETA FINANTZATUKO DIZUGU 24 HILABETETAN, INTERESIK GABE (irekitze komisioa, PSpren %2)

CARAVANAS OIARTZUN Olagarai kalea, 1, 8. Pabiloia • 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa) ☎ 943 49 22 84

GPS: N 43° 17.647' W 001° 52.913'

bike denda berria ALEGIAN